

## **2007-11-20ko EZOHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko azaroaren hogeian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, presazko ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran:; M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi du: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez dira etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA DEIALDIAREN PREMIAKO IZAERA BERRESTEA**

Udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

### **BIGARREN GAIA AURREKO UDAL BATZORDEKO AKTAK ONARTZEA (07/11/06).**

2007ko azaroaren 6ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

**HIRUGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, 2008 URTERAKO ZERGA ORDENANTZEN**  
**ALDAKETA**

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 106 artikulua ezartzen denaren arabera, tokiko administrazioek ahalmena dute zergak ezartzeko.

Egun indarrean dauden zerga ordenantzek ez dute inongo berrikuspenik jasan azken bi urteotan. Oraingoan, aldiz, Udal hau zerga ordenantzak eta hainbat prezio publiko berrikustera behartua dago, besteak beste, herrian hainbat zerbitzu eskaintzen dituztenek suposatzen duten kostua etengabea igo egin delako; biztanle kopurua ere etengabeko hazkundera sartua delako; hainbat zerbitzuren kalitatea bermatu nahi delako; etab.

Ondoren zerrendatutako aldaketak proposatzen dira, aipatzen ez diren gainontzeko zergei egun duten tratamendu bera ematen jarraituko zaielarik:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga:

TURISMOAK	2008 (€)
9 zaldi fiskaletik behera	31
9tik 11,99ra	57
12tik 13,99ra	93,50
14tik 15,99ra	135
16tik 19,99ra	156
20tik gora	182
AUTOBUSAK	
21 eserleku	146
21etik 50era	203
50 baino gehiago	250
KAMIOIAK	
1000kg-tik behera	67,50
1000kg-tik 2999kg-ra	140
3000kg-tik 9999kg-ra	187
10000kg-tik gora	234
TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaleraino	36
16tik 24,66ra	52
25etik gora	135

IBILGAILUEN ATOIAK	
75 kg-tik 1000 kg-arte	36
1000 kg-tik 2999 kg-arte	52
3000 kg-tik gora	135
ZIKLOMOTOREAK	
125 cc arte	9,5
125etik 250arte	15,50
250etik 500arte	31
500etik 1000arte	57
1000etik gora	104

- Edateko uraren hornikuntza:

ETXEBIZITZAK	
3 hilabetero 20 m <sup>3</sup> arte	5,50 €
20 m <sup>3</sup> tik 80 arte	0,35 €/m <sup>3</sup>
80 m <sup>3</sup> tik gora	0,45 €/m <sup>3</sup>
Irakurgailuaren mantenimendua (3 hilab)	2 €
DENDA, GARAJE ETA TABERNAK	
3 hilabetero 30 m <sup>3</sup> arte	9 €
30 m <sup>3</sup> tik 100 arte	0,40 €/m <sup>3</sup>
100 m <sup>3</sup> tik gora	0,50 €/m <sup>3</sup>
Irakurgailuaren mantenimendua (3 hilab)	2 €
ENPRESAK	
3 hilabetero 40 m <sup>3</sup> arte	16 €
40 m <sup>3</sup> tik 200 m <sup>3</sup> arte	0,50 €/m <sup>3</sup>
200 m <sup>3</sup> tik 500 m <sup>3</sup> arte	0,60 €/m <sup>3</sup>
500 m <sup>3</sup> tik gora	0,65 €/m <sup>3</sup>
Irakurgailuaren mantenimendua (3 hilab)	4 €

- Estolderia eta Zabor bilketa zerbitzua

Etxebizitzak	22 € 6 hilabetero
Dendak eta garaje txikiak	40 € 6 hilabetero
Elkarte eta tabernak	50 € 6 hilabetero
Enpresak	
5 langile arte	65 € 6 hilabetero
5 langiletik 20 arte	100 € 6 hilabetero
20 langile baino gehiago	170 € 6 hilabetero
Dantzalekuak	600 € 6 hilabetero

- Hilobi eta ehorzketa zerbitzua

Hilobiak 10 urtez	200 €
Ehorzketa hilobian	200 €
Ehorzketa panteoian	300 €

- Espaloietatik eraikinetara sartzeko eta horretarako bide publikoko aparkalekuak erreserbatzea:

Erabilpen pribatuko garajeak	25 € metro lineal edo zati bakoitzeko
Garaje kolektiboak	
6 ibilgailutik 25 ibilgailura	40 € metro lineal edo zati bakoitzeko
25 ibilgailutik 50 ibilgailura	80 € metro lineal edo zati bakoitzeko
50 ibilgailutik aurrera	120 € metro lineal edo zati bakoitzeko

- Udalaren herri erabilerako terrenoak hartzea merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, edukiontziak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuk jarriaz

Aldamiok: 2,5 metroko altuera eta pasaleku babestua	0,20 € metro lineal edo zati bakoitzeko
Bide publikoaren okupazioa	0,30 € m <sup>2</sup> edo zati bakoitzeko
Edukiontziak	0,60 € m <sup>2</sup> edo zati bakoitzeko

- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik:

Fotokopiak, alde bakoitzeko:	0,10 €.
Fotokopiak, bi aldeetatik:	0,20 €.
A4 baino handiagoak	0,25 €.
Faxaren erabilpena	1,5 € orri bakoitzeko

- Euskara ikastera doazen herritarrei hobariak:

Ikasle langabetu edo jubilatutak	
Matrikula kopuruaren 100%	Gutxieneko asistentzia > %90 eta aprobetxamendua ona izan badu
Matrikula kopuruaren 50%	Gutxieneko asistentzia < %90 baina aprobetxamendua ona izan badu
Lanean ari diren ikasleak	
Matrikula kopuruaren 80%	Gutxieneko asistentzia > %85 eta aprobetxamendua ona izan badu
Matrikula kopuruaren 40%	Gutxieneko asistentzia < %85 baina aprobetxamendua ona izan badu

- Gizarte zerbitzuak:

Etxez etxeko laguntza zerbitzua	
Ordu arrunta	17,70 €.
Jai eguneko ordua	Ez dago aldaketarik

Hobariak	
Herrian antolatzen diren ikastaroak eta haurtzaindegia:	
Famili ugaria titulua dutenak	%25 laguntza
Jubilatuak	Gastu osoaren %50 laguntza
Langabetuak	Gastu osoaren %50 laguntza

Udal tasak:		
Bizikide kopurua	%90	%50
1	Profesioarteko Gutxieneko Soldata (PGS)	PGS+%30
2	PGS+%10	PGS+%40
3	PGS+%20	PGS+%50
4	PGS+%30	PGS+%60
5	PGS+%40	PGS+%70
6	PGS+%50	PGS+%80

Hau guztia Gipuzkoako Herri Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan araututakoa betez, aldaketaren berri iragarriko da, guztiek honen berri izan dezaten eta, 30 lanegunetako epean, egoki iruditzen zaien kexa eta erreklamazioak egin ahal izateko. Esandako epea kexa edo oharrik gabe amaitu ondoren, hartutako erabakia behin betikoa izango da, akordio berrien beharrik gabe.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2008 urterako zerga ordenantzen aldaketa egitea eta dagokion iragarpena egitea hurrengo 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izan daitezen.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzen finkapen eta aldaketa onesten duten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenean, dagokion Salaren aurrean, administrazioarekiko auzitarako errekurtsua tartekatu ahal izango dute interesatuek bi hilabeteko epearen barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 22:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.